

20. BERTAKO ZUHAITZEN HAZI BANAKETA

Larunbat eta igande honetan, urriak 28 eta 29, urtero egiten dugun bezala (eta honezkerok 20. aldia da!!) bertako zuhaitzen hazi-banaketa ekingo diogu. Espezie bakoitzak dagokion tokian egon behar duelako, Haritzalde bertako zuhaitzen aldarrikapena egiten du. Hortaz, besteak beste haritzen, pagoen, gaztainondoan, lizarren eta astigar txurien haziak banatuko ditugu. Hogei urte hauetan 50.000 hazi baino gehiago banatu ditugu herritarren artean eta asko dira gerora gurekin harremanetan jarri direnak haien zuhaitzak nola hazi zaizkien, batzuetan gerora zuhaitz horiek elkarrekin landatu ditugularik.

Basoek gutxi gora-behera atmosferan dagoen Karbono kopuruaren bikoitza gordetzen dute, mundu mailan 1.000.000.000.000.000 Tn baino gehiago suposatzen duena. Gordailu horrek babesten gaitu. Basorik gabe, zuhaitzik gabe, karbono dioxido horren parte handi-handi bat airean legoke, jasan ezinezko negutegi efektu bortitz bezain jasanezina eraginez. Erregai fosilak erabiltzean, lurrazpian pilatuta eta babesean denbora asko zeramatena atmosferara igortzen ari gara. Basoek eta ozeanoek isuri kutsakor horren erdia baino gehiago hartu dute, orain arte berotegi efektuak sortutako klima aldaketaren eragin kaltegarrien eta beldurgarrienetatik salbatu gaituztelarik. Hortaz, ekimen xume honen bitartez zuhaitzen premiazko dugun behar hori aldarrikatu nahi dugu. Bertako basoen garrantzia goraipatu nahi dugu, klima aldaketaren kontra ezinbesteko aliatuak ditugulako, baina baita zerbitzu ugari eskaintzen dizkigutelako. Aldi berean, gure inguru gertuan zuhaitzen suntsiketa salatu nahi dugu, Lourdes Txikikoa kasu.

Horregatik, haziak ereinez, zuhaitz-landareak etxean sortzera gonbidatu nahi zaitugu, zeinak gerora mendian landatuko ditugun. Animatu eta hurbildu gure postura, eskuratu zure haziak eta **jar ezazu zuhaitz zure bizitzan.**

Non: Kontxako psealekuan (1. arrapala)
Euritsua egonez gero Gipuzkoa plazan.
Noiz: Urriak 28, larunbatean eta igandean, urriak 29.
Ordutegia: 11:00-19:00 (larunbatean)
11:00-14:00 (igandean)

Harremanetarako: 609 420 438
www.haritzalde.org



HARITZALDE
naturzaileen elkartea

20º REPARTO DE SEMILLAS AUTÓCTONAS

Este sábado y domingo, 28 y 29 de octubre, tal y como venimos haciendo anualmente desde hace 20 años, vamos a repartir, de manera totalmente gratuita, semillas de árboles autóctonos, recogidas en nuestro entorno. Desde Haritzalde reivindicamos y defendemos lo autóctono, porque cada especie, donde mejor está es en su sitio, en su hábitat. Por ello, llevamos repartidas más de 50.000 semillas y son numerosos los ciudadanos que nos han enviado fotos a posteriori, o nos han llamado o escrito para contarnos cómo crecía su arbolito. Con muchos hemos transplantado incluso los retoños al monte... un placer!

Los bosques guardan aproximadamente el doble de carbono que el existente en la atmósfera, es decir más de 1.000.000.000.000.000 Tm de carbono. Son precisamente esos depósitos o almacenes los que hasta ahora nos han protegido contra los efectos más drásticos de un cambio climático inducido por el rpopio ser humano y que tenemos en ciernes. Sin árboles, sin bosques, buena parte de ese carbono estaría en la atmósfera con unas consecuencias que a todas luces serían catastróficas. Seguimos quemando energía fósil y liberando carbono. Los bosques y los océanos han absorbido buena parte de lo vertido al aire hasta ahora, pero hasta cuándo? El papel de los bosques, de los árboles es por tanto crucial para nuestra supervivencia y por medio de esta sencilla acción queremos reivindicar su importancia. Son y serán nuestros mejores aliados contra el Cambio Climático. Por eso también queremos denunciar las talas en nuestro entorno cercano, como la de Lourdes Txiki.

Os proponemos sembrar en casa semillas de árboles autóctonos y seguir su crecimiento, cuidar las plántulas y os invitamos a repoblar nuestros montes, a plantar árboles. **Os esperamos en el puesto! Pon un árbol en tu vida!**

Dónde: Paseo de la Concha (1ª rampa)
En caso de lluvia: plaza de Gipuzkoa.
Cuándo: 28 de octubre, sábado y domingo 29 de octubre
Horario: 11:00-19:00 (sábado)
11:00-14:00 (domingo)

Contacto: 609 420 438
www.haritzalde.org



HARITZALDE
naturzaileen elkartea